

Espediente moetea: Administrazino kontratazinoa

Kontratua: Zerbitzu publikoen kudeaketa kontratua, prozedura negoziadua publizidadeagaz (Emakidea)

Espediente zenbakia: KU7-19

BERMEOKO NESTOR BASTERRETXE ARETOA USTIATZEKO ADMINISTRAZINO EMAKIDEA EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- XEDEA-

Plegu honeetan oinarriturik egingo dan kontratuaren helburua honakoa da:

1.1.- Bermeoko Nestor Basterretxea aretoaren ustiapen zinematografikoa gauzatzea Bermeoko Udalaren Kultura eta Hezkuntza sailaren zuzendaritzapean.

Esleipendunak bere gain hartu dau baldintza pleguan ezarritakoaren arabera zerbitzua emotearen ondoriozko arrisku ekonomikoa.

1.2.- Beharrezkoa dan giza baliabide edo langileria eskaintzea, bai Udaleko Kultura eta Hezkuntza sailak eskaintzen dauen kultura egitaraua jorratzeko bai herritarren parte hartze aktiboa bermatzeko, kultur taldeek edo herriko artistek burututa eskaintzen diran ikuskizunak eta ekitaldi ezbardinak aurrera erodateko.

2.- FUNTZINOAK-

Esleipendunak, gitxienez, hurrengo funtzioak eta zerbitzuak gauzatu beharko dauz:

2.1.- Nestor Basterretxea Aretoa zinema komertzial modura erabilgarria izan daiten beharrezkotzat jotzen diran egiteko guztiak:

- a) Kultura eta Hezkuntza sailari/Batzordeari aurreikusitako programazinoaren barri emotea.
- b) Onartzen dan programazinoaren barruan dagozan filmeak (estreinaldiak barruan dirala) kontratatzea, garraiatzea, muntatzea, publizitatea emotea, proiektzioa eta aretoaren ardurea, eta emonaldia egin eta gero itzultzea.
- d) Filmeak alokatzeko, banatzaile zinematografikoakaz erlazino egokia mantentzea. Esleipendunak merkatuko zine proiektzioaren jarduerari buruzko lege, administrazino eta zerga mailako xedapen guztiak bete beharko dauz, besteak beste, SGAeri eta Kulturako Ministerioari lotutakoak. Beharrezkoak izan daitekezan lizentziak eta baimenak lortu beharko dauz.
- e) Leihatilan sarrera tiketak saltzea, Janto programaren bidez eta lokaletarako sarbidea zabaltzea, itxi eta kontrolatzea.

- f) Aretoren irekita eta ustiatze egokirako beharrezkoa dan langileria ekartea:

Leihatila-saltzailea, atezaina, zine operatzailea, argi, hots eta mantentzeko teknikaria, aretozaina eta garbitzailea.

- g) Esleipendunak urtean programatu eta eskaini behar dauzan filme komertzialak eta umeentzako emonaldia ez dira 70 baino gutxiago izango. Horreetatik, 40 filme, komertzialak izango dira, Europako zineari arreta berezia eskainiz, eta 30 umeentzako emonaldia. Astearen barruan, 5 funtzino eskainiko dira, nagusientzat. Adibidez: barikuetan, 21:30etan; zapatuetan 21:30etan; domeketan, 19:00etan eta astelehenetan, 19:00etan eta 21:30etan. Eta umeentzako pelikula dagoanean, hiru funtzino eskeiniko dira, zapatuetan 16:30ean eta 18:30etan eta domeketan 16:30ean. Umeentzako pelikula egongo ez balitz, zapatu arratsaldean 19.00etako funtzinoa eskainiko da nagusientzako pelikulagaz. Posible izango da be, martitzenetan edo beste egun batean beste funtzino bat edo bi eskaintzea ikusleagoak halan eskatzen badau eta emakidadunak ontzat hartzen badau. Esleipendunak bere proposamena aurkeztuko dau, egutegia, oporrak, etab. adierazoz.
- h) Beharrezkoa izango da urteko programazioaren barruan euskeraz ekoiztuta eta euskerara bikoiztuta dagozan filme komertzialak eskaintzea. Umeentzako, hilean behin, eta nagusientzako, dagozanak, Udaleko Euskera Sailagaz adostutako baldintzetan.
- i) Esleipendunak, proiektzioak hasten diranean, instalazioak baldintza higieniko egokietan egoteko ardura hartu beharko dau, eta ez dau janaririk edo edaririk sartzen itziko. Proiektzioak amaituta, ondo garbituko da.
- j) Zineko programazinoak publizidadeaz arduratuko da, ahalik eta hedapen handiena izateko.
- k) Aretoko segurtasun neurriak betetzeko, emondako aholkuak beteko dauz.
- l) Esleipendunak, zinema proiektzioak irauten dabezan artean, erakusgelaren zabalera, itxieraz eta argiak jartzeaz ardura hartuko dau, jabolera hirugarren bat danean.

2.2.- Urtean zehar, zine emonaldien egutegi barruan, 20 egunetan, gehienez, Nestor Basterretxea Aretoa erabilteko eskubidea gordetzen dau Udalak.

Euren artean, data batzuk urtero mantenduko dira: Arrain Azokea, Andra Mari eta Eupeme Deunaren jaiak eta Emakumearen eguna. Egun horreetan, esleipendunak beharrezkoa dan langileria eskaini beharko dau. Esleipendunari 15 eguneko aurrerapenagaz jakinarazoko jako.

2.3.-Zinemarik ez dagoenean be, udalak kultura aretoaren erabilera bere esku eukiko dau, eta, bereziki, barikuetan kultur ekintzak antolatu ahal izango dauz.

Enpresa emakidadunak daukazan langileak, programatzen dan ekintza bakotxa aurrera erodateko egokiak diranak, izango dira. Ekintza horreek moeta honetakoak izan daitezke: antzerkia, musika saioak, hitzaldiak edo antzekoak, bideo-emonaldiak, zinea, erakusketak eta bestelakoak. Egin beharreko lanak honek izango dira:

- a) Muntatzea, desmuntatzea, argiak, soinua, zama-lanak eta laguntza teknikoa, behar diran ikuskizunetarako. (Musika, antzerkia, zinea...)
- b) Altzarien, horniduren, makinen eta instalazinoen mantentzea egitea, konponketa espezializatuak izan ezik (berokuntzea, instalazio elektrikoa, su-itxalgailuak, etab.)
- d) Lehiatileen tiketak saltzea, Janto programaren bidez eta lokaletarako sarbidea zabaltzea, itxi eta kontrolatzea.
- e) Aretoa baldintza higieniko egokietan egoteko ardurea hartu beharko dau, eta ez dau janaririk edo edaririk sartzen itziko. Ikuskizuna amaituta, ondo garbituko dau.

Udalak Janto programa kontratatuta eukiko dau, aretoan antolatzen diran ekitaldietarako, eta esleipendunak sarrerak salgai ipiniko dauz, takilan ekitaldia hasi baino ordu bat lehenago, udalaren agindupean. Honelako ekintzak burutzen diranean, emakidadunak hurrengo hiru egunetako epearen barruan sarreraren salmentaren bitartez eskuratu dan dirua, udalaren kontu zenbakian sartu beharko dau.

Udalak esleipendunari mueta honetako ekintzak burutuko dirala, hamabost egun lehenago jakinarazoko deitso.

Hile bakotxeko ekintzak burutu eta gero, esleipendunak faktura bat aurkeztuko dau udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailean, egindako lan guztien deskribapenagaz. Kultura eta Hezkuntza Sailaren oneritxiagaz, bankuko transferentzia bidez ordainduko da, gehienez jota hilabete biko epean, fakturea erregistroan sartzen dan egunetik zenbatzen hasita.

2.4.- Erakusketeak

- a) Udalak antolatutako erakusketak dagozanean, esleipendunak honako lanak egin beharko dauz: muntatzea, desmuntatzea, argiak ipintea, erakusketea jagotea, liburutxoaren salmentarik balego eta lokaletarako sarbidea zabaltzea, itxi eta kontrolatzea, ikusle kopuruaren txostena eginez erakusketa bakotxaren amaieran.
- b) Alkarteek edo artistek, udalaren baimenagaz erakusketak antolatzen dabezanean, esleipendunak, erakusgeletako argiak ipini beharko dauz, eta egunero lokaletarako sarbidea zabaltzea eta itxi. Interesadunak jagon beharko dau erakusketea. Zinema proiektuak dagozanean, emakidadunak bere langileekaz eskainiko dau zerbitzu hau dohain. Zinemarik ez balego, beste langileren bat egingo dau lan hau.

2.5.- Herriko talde, alkarte, partikular edo bestelakoek aretoa erabilteko baimena daukienean:

Herriarrek, jardunaldiak, hitzaldiak, bideo-emonaldiak, batzarrak, etab. antolatu leikiez, udaleko Kultura eta Hezkuntza sailaren baimenagaz.

Esleipendunak horren irekita, eta kontrolerako beharrezkoa dan langileria ipini beharko dau, eta ekintzak egiteko beharrezkoa dan tresneria martxan jarriko dau.

2.6.- Aipatutako funtzinoez gain, ekintza guztietarako komunak diran zerbitzu honeek be bete beharko dauz:

- a) Kexa-liburua eroan eta ikuslegoaren, agintarien eta hareen agenteen esku eukitea beti.
- b) Pertsonak eta ondasunak modu egokian babesteko, beharrezkoak diran aseguruak hitzartzea. Era berean, klausula juridiko eta ekonomiko-administratiboen pleguan ezarten diran muga eta kopuruen barruan erantzukizun zibileko aseguru ituntzea.
- d) Instalazioak egunero egon beharko dira zainduta, kontratuak irauten dauen bitartean, jai egunetako atentzinoa barruan dala kontuan izanda.

3.- KONTRATUAREN IRAUPENA.-

Emakidearen iraupena urtebetekoa izango da, zerbitzua kudeatzeko kontratua egiten danetik zenbatzen hasita; kontratu hori urtebeteko aldietan luzatu ahal izango da, alderdi biek ados egonez gero, eta iraupen osoa (luzapenak be barruan dirala) ezin izango da lau urtetik gorakoa izan.

Kontratua amaitutakoan, emakidadunak Bermeoko Udalaren esku itzi beharko dauz instalazioak, eta horreen inbentarioa emongo dau, baita, lokalen giltzak be.

Lokalak izteko ez da beharko udalaren errekerimendurik, eta horrek, administrazio bideen bitartez berreskuratu ahal izango dau lokalen erabilerea, interdiktuetara jo beharrean.

4.- GIZA BALIABIDEAK.-

- o Emakidadunak kontratatutako langileria, zerbitzua aurrera eroateko eta sortu leikezan arazo teknikoei aurre egiteko prestatuta egon beharko da.
- o Emakidadunaren langileria zerbitzuaren erabiltzaileei tratu atsegina eta kalidadekoa eskaintzeko gai izan beharko da.
- o Erabiltzaileakaz mantentzen diran hartu-emonetan erabiliko dan hizkuntzea, euskerea izango da.

5.- LIZITATZAILEEN BALDINTZAK.-

Lizitatzailleek bete beharreko gitxieneko baldintzak eskaintzetan adierazoko dira, eta honako honeexek dira:

Enpresearen antolaketarako beharrezkoak diran langileak eta material guztiak eukitea, kontratua behar dan moduan beteteko.

- Azken hiru urtetan lizitatzailerak antzeko zerbitzuetan jarriko diran langileek edota enpresak izandako esperientzia.

- Kontratua betetzeko baliabide pertsonalen titulazioak (beharrezkoa da, argi eta hots teknikariaren titulua izatea).

- Kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak diran giza baliabide edo langileek euren lanpostuetan euskeraz normaltasun osoz jarduteko gaitasuna edukiko dabe, ahoz eta idatziz, udalagaz zein herritarrekaz izango dabezan harremanak bideratzeko.

6.- LOKALAREN EZAUGARRIAK.-

Nestor Basterretxea Aretoa Prantzisko Deuna Atea kalean kokatzen da eta Sociedad Bermeanaren eraikinaren mendebaldeko fatxadatik eskailera bikotxatik heltzen da.

Instalazioak honeek dira:

- 123 jesarlekuko patioa, eszenatokia, eta proiektzio eta kontroleko kabinea.
- Hall-etik sarrerea eta komunak.
- Lehiatilea.
- Aldagelea.
- Garbitasuneko biltegia.
- Kaletik eta sarrerarainoko eskailerak.

Hiru bloke dagoz: bata erdian, pelikulak, hitzaldiak eta abar emoteko eta alboetako biak erakusgela modura.

Azalera honeek dira:

Eszenatokia	23,40 m ²
Aretoa	138,98 m ²
Erakustaretoa (1)	56,90 m ²
Erakustaretoa (2)	51,36 m ²
Aldagelea	4,80 m ²
Komunak	33,46 m ²
Halla eta pasabideak	39,62 m ²
GUZTIRAKO AZALERA.....	348,52 m²

Plegu honeei atxikirik dagozan planoetan zehazten dira.

Udalaren jabetzakoak diran ondasunak zerbitzuaren kudeaketa egokirako bakarrik ipinten dira emakidadunaren esku. 1 zenbakidun eranskinean zehazten dira horreek ondasunak.

7.- EMAKIDADUNAK EGIN BEHARREKO BESTE PRESTAZINO BATZUK.-

- a) Instalazioak behar dan moduan erabilten dirala zainduko dau, azpiegiturak eta zerbitzuen erabilerea, erabiltzaileei erraztuz.

- b) Instalazio honeetan beharrezkoak diran langileak kontratazeko gastu guztiak ordainduko dauz, baita honeen gizarte segurantzak, istripu aseguruak eta bajak, lan-absentismoa edo eguneroko joan-etorriak.
- d) Zerbitzuak funtzionatzeko gastu guztiak ordainduko dauz, esate baterako: lizentziak, zergak, garbiketarako produktuak, etab.
- e) Esleipendunak, osasun legediak ezarritakoa bete beharko dau, baita garbitasun neurri gomendagarriak be.
- f) Erantzukizun zibileko aseguru polizea kontratatu beharko dabe, plegu honetan agertzen diran zerbitzuak garatzeko.
- g) Esleipenduna da ustiapenaren arduradun zuzena. Zerbitzua laga, jabez aldatu edo errentan ipintea galarazota dago, udalaren baimen barik.
- h) Mantentze zerbitzua dala eta, emakidadunak lan honeek egin beharko dauz:
 - Azpiegituren mantentze orokorra, ekipamenduaren erabilera ahalbideratuz.
 - Instalazioak erabilteko moduan, ondo dagozala zaintzea.
 - Bermeoko Udalaren jakinean ipintea gertatzen diran hauste, aberia eta beste honelakoak eta beharrezkoa danean laguntza tekniko eskatu instalatzaileei.
 - Euren kontura konponketa txikiak egitea: kontserbatze lan txikiak (pintatzea, berniza emotea, etab.) edo bonbilak, fusibleak eta honelakoak aldatzea, etab...
 - Aretoak eta komunek garbitzea, zinea edo bestelako ekitaldi bakoitzaren ostean. Udalak eguneroko garbiketara egiteko enpresea kontratatuta dauka. Enpresa esleituak, zerbitzu hau, astelehenetik zapatara eskaintzen dau goizez.

8.- EMAKIDADUNAREN BETEBEHARRAK.-

Esleipendunak zine komertziala eskaintzeko proiektu orokorra aurkeztu beharko dau eta bertan azalduko dauz xedea, hartzaileak, giza-baliabideak, ordutegiak, publikidadea,...

Baita, kultur egitaraua aurrera atarateko beharrezkoa dan langileriari buruzko proiektu zehatza be. Eskaintza ekonomikoan, jarduera bakoitzeko eskaintako prezioa eta zerbitzuak adierazoko dauz, inzidentzia guztiak aitatz (ordutegia, jai egunak...). Ikusi, 2.3, 2.4 eta 2.5 atalak, aurreikusitako lanak zehazteko.

Langileriari jagokonez, horren antolaketa, eginkizun, esperientzia, euskera maila eta prestakuntzari buruzko txostena aurkeztuko dau.

Zerbitzuaren esleipendunak ekonomia jarduerara justifikatzeko memoria aurkeztuko dau hiru hilabeterik behin, zerbitzuak eragindako diru-sarrerak eta gastuak zehaztuz, eta, hileroko, zinemaren txostena, pelikulak eta ikusle kopuruak isladatuz.

Hizkuntzearen erabilera:

Bermeok daukazan hizkuntza ezaugarriak kontuan izanda, Nestor Basterretxea Aretoaren lehen eta ohiko hizkuntzea, bere jardunaren luze-zabalean euskerea izango da. Horretarako, Euskeraren Udal Ordenantzeak, udal azpiegiturak erabilteko zehazten dauzan baldintzak, orokorrean, bete egin beharko dauz adjudikatariak. Zehatz esateko, euskerea erabilteko erispideak honakoak izango dira:

- a) Irudia eta errotulazinoa: kanpoko errotuluak eta lokalaren barruko seinaleak euskeraz idatziko dira.
- b) Edozein iragarki, ohar, abisu eta abar, euskeraz idatziko da. Beste hizkuntza baten edo batzuetan idatzi beharra balego, euskerazko testuari lehentasuna emongo jako, tamaina bi aldiz handiagoa erabilita.
- c) Nestor Basterretxea Aretoaren eta bertan egingo diran ekintzen publizitatea egiteko erabiliko dan hizkuntzea euskerea izango da.
- d) Ekintzak iragarteko erabiliko diran elementuak (kartelak, esku-orriak, sarrerak...) euskeraz idatziko dira. Hizkuntza gehiago erabili ezker, b) atalean zehaztutako jarraibidea izango da kontuan.
- e) Langileek euskerea erabiliko dabe udalagaz, herritarraz, zein gainontzeko harremanetan normaltasun osoz.
- f) Euskera egokia erabiliko da, kalitatea zainduko da bereziki.
- g) Emakidadunak udalari aurkeztuko deuten dokumentazio guztia (txosten, memoria, faktura eta abar) euskeraz aurkeztuko dauz.

9.- ESLEIPEN ERISPIDEAK.-

Kontratazino honen esleipen erispideak, honakoak izango dira:

- Zerbitzuen eskaintza ekonomikoa. (%70)
- Nestor Basterretxea ustiatzeko proiektua, zine emonaldiak eta eskeiniko diran lanak, kultura saileko programaziorako. (%15)

Proiektuan hurrengoak azalduko dira: zine-emonaldiaren xedea, hartzaileak, giza-baliabideak, ordutegiak, publizitatea. Eta kultura saileko programaziorako eskainiko dan lanak eta giza-baliabideak.

- Proposaturiko hobekuntzak, ordain ekonomikorik sortu ez eta zerbitzuagaz kalitatea hobetzeko balio badabe. (%15)

10.- ZERBITZUAREN PREZIOAK, GASTUAK, URTEKO KANONA.-

10.1.- Kanona

Ez da kanona jarriko, eta ondo justifikatuta geratu da kontratu honetan.

10.2.- Zerbitzuen prezioak

Zine emonaldiakaitik, ikusleek ordaindu beharreko tarifak Kultura eta Hezkuntza batzordeak proposatuko dauz, urte bakotxaren hasieran.

Emakidan finkatutako tarifen kobrantzea zuzenean esleipendunak burutuko dau, bere sarreren parte izanik, zine emonaldiko zerbitzuen kasuan.

Ekintza kulturaletatik eratorritako sarrerak Bermeoko udalari jagokoz eta ekintza honeen tarifea edo prezioen ezarpena Kultura eta Hezkuntza Batzordearen eskuduntza izango da.

Prezioak ikusgai egon beharko dira beti.

10.3.- Gastuak

Bermeoko Udala gastu honeetaz kargutuko da:

Emakida honen xede dan zerbitzuaren publizitatea egiteaz eta publizitate honek eragiten dauzan gastuak ordaintzeaz.

Honako gastuak: telefonoa, ura, argia eta Janto programa sortutakoak.

Ondasun higiezinak hondatuko balitzatekez be, horreen ordezeko materiala udalaren kontura izango litzateke.

Emakidaduna gastu honeetaz arduratuko da:

Kontratuaren ondoriozko estatu, udalerrri eta autonomia mailako zergak.

Mantentze arruntei jagokezan gastuak: garbiketee, konponketa txikiak, bulegoko materiala, etab.

11.- KOORDINAZIOA ETA GAINBEGIRATZEA.-

Bermeoko Udalaren Kultura eta Hezkuntza sailak koordinatuta eta gainbegiratuta garatuko da zerbitzua.

12.- URRATZEAK ETA ZEHAPENAK.-

Pleguetan eta kontratuetan jasotako betebeharretariko bat ez beteteak zehapena erakarriko dau.

Honako jardute honeek zehazteko modukoak izango dira:

1. Zerbitzuek geldiarazotea edo hamabost egunetan baino gehiagotan etetea, ezinbestekoa danean izan ezik.

2. Salatzea edo aparteko nahiz premiazko jarduna behar dauen egoerea jakinarazo eta gero, berehalako eskuhartzerik ez egotea.
3. Zerbitzuak txarto edo modu irregularrean emotea, jendeak, bertan lan egiten dabenean profesionalak edo udalak egindako ikuskarpenek hori salatzen dabenean.
4. Ordutegiak ez betetea, modu sistematikoan; ezarritako baliabide teknikoak ez erabiltea edo horreek kontserbazino egoera txarrean egotea.
5. Jendeak eta sektoreko profesionalak kexak azaltzea, emakidadunagazko hartu-emonaren ondorioz.
6. Kultura eta Hezkuntza Sailak emondako aginduak ez betetea.
7. Jardute epeak ez betetea, parteak sasoiz ez aurkeztea eta horreek akatsak eukitea, sinesgarritasunari eta informazio ezari jagokonez.
8. Plegu honetan ezarritako baldintzak eta epeak ez betetea, hortik sortu leikezan ekintzen eta aurretiaz ezarritako jarduteen (emakidadunaren jardunak) kalte barik, horreek kaltegarriak badira Plegu honetan ezarritako baldintzetarako edo zerbitzuaren kalidaderako.
9. Hizkuntzaren inguruan zehazten diran baldintzak ez betetea.

Zehapenak

Kasu bakoitzean lehenengo urratzea egin ondoren, Udalak lehenengo abisua emongo deus emakidunari eta urratzea ez bada zuzentzen, goian aipatutako puntuetan, hau da, 1., 3., 5. eta 6. puntuetan 300 € arteko isuna aplikatuko da eta 2., 4. 7. eta 9. puntuetan, kontratua eten egingo da. 8. puntuaren kasuan, ez betete bakoitzari jagokonean zehapena kasu erabagiko da, beti be zuzenbide administratiboz jagokozan arauak ezartzen dabenean kalte barik.

13.- KONTRATUAREN ETA AZPIKONTRATUAREN LAGAPENA-

Kontratuaren lagapenari jagokonez, Kontratuei buruzko Legeko 114. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Azpikontratuari, barriz, Kontratuei buruzko Legeko 115. artikuluan ezarritakoa aplikatuko jako; halan ta guzti be, Administrazioari egin beharreko azpikontratuaren barri emoteko idazkian, aipaturiko artikuluetan ezarritako baldintzak ez ezik, azpikontratuaren baldintza teknikoak be adierazo beharko dira.

Bermeon, 2013ko uztailearen 29an

ERANSKINA 1

EMAKIDADUNARI EMON JAKOZAN UDALEKO JABETZA ONDASUNAK

1.1.-PROIEKZIO EKIPOA. 1. AUKERA.

1 PROYECSION PX35 krono projektorea.

- Aluminio zerratuko karterra dauka eta engranajeen sistemaren lubrifikazio orokorra ponpaketa jarraiaren bidez egiten da.
- Leihatila blokea dauka ur zirkuituaren bidezko hozte-sistemagaz.
- Aldamenetako formatu bikoitza. (Panoramikoa eta Zinemaskope).
- Objektiboak eroateko dorretxoak; objektibo bakoitzak ikuspegi independentea dauka.
- Fokoaren zabaltze automatikoa.
- 220/ 380V-ko motor asinkronoa.
- Soinu irakurgailua (Reverse Scan-Analogikoa) led gorriagaz.
- Segurtasunerako automatismoa: pelikula apurketa detektatzean gelditu eta gelako argiak isiotzen dira.
- Pelikularen hasiera eta amaiera detektatzeko sentore induktiboak; detektatzean gelako argiak isiotzen dira.

1 PL-5000 DORREA PX-35 EGOKITZAPENA

- PX35 kronorako euskarri eta linternagaz.
- Arraste sistema 12'7mmko ardatzagaz.
- 4500 m-rainoko kapazitatea.
- Pelikula entregatu eta batzeko erregulazio elektronikoko sistema.
- Birbobinatzailea abiadura aldatzekoagaz.
- Pelikula gidatzeko arrabolak.
- Programa dorre gainean muntatu eta desmuntatzeko aukera.

1 Xenoluxe ML 1000/2000 linterna.

- Plano mugikorraren gainean muntatutako ispiluaren euskarria; 3 ardatz koordinatutan dauka mugimendua.
- Xenon lanpara hozteko, haizeari emari handiko 2 zentrifugoren bidez bultza egiten jako.
- 330 mm-ko Mir ispilu metalikoa.
- IREM isiotze-hasiarazotekoa.
- Ampereak kontrolatu eta erregulatzen dauz.
- Xenon lanpara isiotzekoa.
- Orduak zenbatzekoa.
- Amperemetroa.

1 Xenon Hztal. R-621 MIR ispilu metalikoa

- 300 mm-ko diametroa, 60 mm-ko zulaketa.
- 48/802 fokoak.
- OSRAM 1.600 W/HSC OFR (HRTAL) Xenon lanpara 1.
- Funtzionamenduaren korrante maila: 50-70 A.
- Batez besteko iraupena: 1500 ordu.

1 XP-85 Artezgailua.

- Uhin osoko artezgailu trifasikoa siliziozko diodoegaz.
- Intentsitatea erregulatzen transduktoreak (asetzeko moduko erreaktantziak).
- Proiektoretik bertatik martxan ipini eta erregulatzen da.
- Haizeaz bultzatuta egindako hozketa.
- OSRAM lanpara fabrikatzaileak homologaturiko eraikuntza.
- 900/2000w-ko lanparentzat.
- Ampereen erregulazioa: 45/85 A.
- Hutseko tentsioa: 90 v.
- Kizkurdura: <4'25%.

1 SCHNEIDER SUPERCINE LUX 2xMC anamorfikoa.

- 70'65 mm-ko diametroa.
- 50etik 100 mm-ko primarioakaz konbinatzeko modukoa (50etik 75 mm-ra. SK 3994 modeloko erdiko uztaila).
- Proiektzioaren gitxieneko distantzia: 3mm.

2 SCHNEIDER SUPERCINSLUX objektiboa.

- 62'5 mm-ko diametroa.
- Fokoen distantzia obran zehaztuko da.

"W-nakar itxurako" oihala: 19 M2.

Pantailako oihala lentikularra, zuria eta berezia. Islapen handia. Ikusi ezin diran soldadurak. M1 sukontrakoa.

Soinua zultatzeko. Teinkatzeko zuloak. Irabazia: %112.

1 PM6 pantaila mugikorraren markoa

Txasis bikoitza, 1"ko altzairuzko tutuarekin eginikoa; hormari eusteko atzaparrak dauka eta pintura antioxidatzaileaz tratatuta dago.

Neurriak: 6 x 2'56 m.

KABINAN BEHAR DIRAN OSAGARRIAK

1 R-5000 Birbobinatzailea.

- 12'7 m/m-ko ardatzeko dorreak. Bobinaren kapazitatea: 970 m/mko diametroa.
- Korronte zuzeneko motorra, abiadura erregulatzailea daukan kontrol kaxagaz.
- Lotailuari eusteko taula.

2 970 mm-ko bobina finkoa ; 4500m.

1 Desmont bobina; 600 MT E-12'7 mm.

1 CIR lotailua, 35 mm-ko ebakidura 1 daukana.

SOINU EKIPOA

MONO SOINUA: KATE 1 PANTAILAN.

1 100 W-ko anplifikazio bikoitzeko racka.

Osagaiak:

- 100 W RMS-ko anplifikadore 2.
- Kontrolatzeko bozgorailu-monitore 1.
- Tonu independenteko kontrola.
- Banda aukeratzekoa, diskoa, mikrofonoa.
- 4tik 6 Ohm-rako inpedantzia.
- 0'2%tik 1 Khz-rako distortsio txikia.

1 JBL 3678 pantailako sistema akustikoa

Sistemaren osagaiak:

- 100 W RMS-ko anplifikadore 2
- Kontrolatzeko bozgorailu-monitore 1.
- Tonu independenteko kontrola.
- Banda aukeratzekoa, diskoa, mikrofonoa.
- 4tik 6 Ohm-rako inpedantzia.
- 0'2%tik 1 Khz-rako distortsio txikia.

1 JBL 3678 pantailako sistema akustikoa

Sistemaren osagaiak:

2342ko zabaltzailea daukan 2426 (1" motorra) multzo 1.

2226H (1 x 15") bozgorailu 1.

Potentzia: 300 w.

Sentsibilitatea: 98dB.

Neurriak: 1019 x 651 x 292.

1 Ekipo horien instalazino eta muntaketa eta baliabide osagarri eta elektrikoak; neurtu eta probatu dira eta funtzionamenduan dagoz.

1.2.- SOINU EKIPOAREN METODOA. 2. AUKERA.

- DOLBY prozesadorea, CP-45 SR estereoa.
- Lau kateko deskodifikatzailea (ezkerrekoa, erdiko, eskumakoa, girokoa).
- Azpibaxuen katea.
- DOLBY SR formatua.
- Seinale sarrerak: optikoa, digitala/ magnetikoa/ osagarria (sinkronizazio bakoa) eta mikrofonoarentzako sarrera.
- CAT 510 preanplifikadore optiko eta estereofonikoa.
- CAT 511 lau kateko deskodifikatzailea.
- CAT 513 bozgorailuen ekualizadorea, 63 Hz-tik 2 KHz-rako eskala daukana. Giroko ekualizadorea.
- 50tik 100 Hz-rainoko pasabide-iragazki baxua.
- Rack formatuko txasisa: 3 unitate.
- Aukerakoa: CAT 515 giroko bigarren katea eta CAT 516 urruneko motelgarria.

1 19"ko soinurako rack altzaria: 30 unitate.

- Prozesadore estereoarentzako lekua eta potentzia etapak.
- Kontrol modulua anplifikadoreagaz.
- Bozgorailu monitorea.
- Kateak aukeratzeko konmutadorea.
- Prozesadore digitala hartzeko prest dago.

1 JBL MPX 600 potentziako etapa.

- 2 x 850 Wtik 2 ohm-ra bitarteko potentzia etapa, 2 x 600 Wtik 4 ohm-ra, 2 x 400 Wtik 8 ohm-ra, 1700 W bridge monotik 4 ohm-ra, 1200 W bridge monotik 8 ohm-ra.
- Abiadura aldagarriko haizemoileak.
- Ondoko led adierazleak : seinalea, klipa, babesak.
- Sarrera konektoreak: terminalak, XLR, JACK.

- Irteerako konektoreak: banana bikoitza.
- Babesak: zirkuitulaburra, zirkuitu zabala, ultrasonikoa, R,F, termikoa, egonkorra karga erreaktibo edo ezegonkorren menpean, korrante zuzeneko irteeraren kontrako babes errelea.

6 JBL 3310 giroko sistema akustikoak.

- Bide biko sistemaren osagaiak:

Baxuen bozgorailu 1 (8").

Altuentzako tweeter 1 (1").

Programaren potentzia: 75 W, 8 ohm.

Neurriak: 494 x 481 x 257 mm (altoxanchoxprof).

ONDOKO PARTIDAK KENDU DIRA AURREKONTU NAGUSITIK.

- 100 W-ko rack anplifikadore bikoitza

Osagaiak:

- 100 W RMS-ko anplifikadore 2.

- Kontrolatzeko bozgorailu-monitore 1.

- Tonu independenteko kontrola.

- Banda aukeratzekoa, diskoa, mikrofonoa.

4tik 6 Ohm-rako inpedantzia.

0'2%tik 1 Khz-rako distortsio txikia.

-Kanalizazioak, baliabide osagarriak eta elektrikoak; neurtu eta probatu dira eta funtzionamenduan dagoz.

2.- ESZENAKO JANTZIAK, GORTINAK

1 Ahoko oihala, amerikarren erako bi orriko zabaltzeagaz; BRUXELLES ehunaz egindakoa, M-1 suktrakoa, 360 gr./ m2-ko pisua, %60ko izurrak, 8 x 4 m-ko neurria eta gurutzatua, tolestura aldamenetan, errefortzuak buruan eta tolestura azpietan, teinkatzeko fusible eta guzti.

Eskuz eragiteko errei metalikoa; 8 metroko neurria dauka eta gurutzatua da, gainera, errodamendun gurditxo labaingarriak, translaziozko poleen sistema eta finkatzeko sistema daukaz.

1 Atzeko oihala, amerikarren erako bi orriko zabaltzeagaz; ESZENATOKIA ILUNTZEKO ehunaz egindakoa, M-1 suktrakoa, 300 gr./m2-ko pisua, 8x4 m-ko neurria eta gurutzatua, tolestura aldamenetan, errefortzuak buruan eta tolestura azpietan, teinkatzeko fusible eta guzti.

1 Gortinak eroan eta instalatu dira; probatu eta funtzionamenduan dagoz.

3.- SOINU EKIPOA

4 30-15.000 Hz mikrofono dinamikoa eta direkziozkoa. Marka: ELECTROVOICE. Modeloa: MC-150.

1 Mikrofono hanka MARK markako jirafagaz.

4 Koning&Mejer markako mahai gaineko mikrofono euskarria.

1 Haririk bako mikrofonoa. Marka: SAMSOM eta modeloa: ONE-Q MIC.

1 Compact disca eta TASCAM markako pletina. Modeloa: CD A-500.

1 Potentzia etapa eta seinala sarrerak nahastekoa (2 balantzatuak eta 3 ez balantzatuak). 5 mikro konektatzeko aukera. Erantzun-maiztasuna: 50etik 16.500 Hz-rainokoa. Tonu baxu eta altuen kontrolak. Bozgorailuen irteerak: 4'8 eta 16 Ohm-tan.

4 Horma gaineko kaxa akustikoa, 1"-ko tweeter-a eta 5"-ko bozgorailua. Erantzun-maiztasuna: 50etik 16.500 Hz.-rainokoa. Tonu baxu eta altuen kontrolak. Bozgorailuen irteerak: 4'8 eta 16 Ohm-tan.

2 4 mikro konektatzeko kaxa; XLR 3 konektatzeko 4 oinarri daukaz. Horma gainean muntatzen da eta kabinaren eta eszenatokiaren arteko seinalaren zati proportzionala be hartzen dau.

1 Sonido ekipoaren instalazioa eta martxan ipintzea.

4.- IKUS-ENTZUNEZKOAK.

1 Hizlariarentzako idazmahaia, taula makurtu, beheko arasa, aurreko parrila eta egitura metalikoagaz. Neurriak: 121 cm altu da eta goiko plataforma 43 x 59 cmkoa da.

1 Aldameneko plataformadun mahai osagarria; 75 cm altu da. Taularen neurria: 46 x 41 cm.

Aldameneko taularen neurria: 46 x 30 cm. Gris argia da. Pisua: 11 Kg.

1 5.200 lumeneko gardenki-erretroproiektorea. 400W/36 v.ko bi lanpara halogeno, 3 lenteko objektiboak (f= 315 mm) eta behera bajatzeko moduko besoa daukatz.

1 100 m-raino heltzen dan laser erakuslea, argi-sorta gorria emoten dau jarraian eta 1'5 v y 22'5 gr-ko pilak daukatz.

1 Gardenkientzako sartzaille automatikoa.

2 Diapositiba-proiektorea eta universal, LKM eta CS kutxatxoak. 250 W eta 24 v.-ko lanpara halogenoa eta objektibo estandarra (F=90mm). Erretroproiektorearen objektiboa eta urrutiko agintea.

1 90 x 120 cm-ko erretroproiektore eroangarriaren pantaila.

1 Eroatea, instalazioa, martxan ipintzea eta baliabide osagarri eta elektrikoak

5.- ALDI BEREKO ITZULKETA.

LBB3420/00 infragorrien erradiadore-sistemarentzako elikatze unitate 1.

LBB3421/00 4 kateko modulu unitate 1.

LBB3422/10 itzultzaileentzako sarrera simetrikkoa daukan modulu unitate 1.

LBB3424/00 oinarritzko modulu unitate 1.

Sei hizkuntzentzako LBB32222/02 interpretari kotsola 1.

LBB9095/30 mikroaurikular 2.

Elikatze unitatearen eta interpretari idazmahaiaren arteko kableaketa 1.

12'5 W-ko LBB 3411/00 infragorri erradiadore 1.

Hormarentzako LBB 3414/00erradiadore euskarri 1.

6 pila hartzaile (6+ 1 kate LBB3433/05).

6 LBB3440/00 mikro aurikular.

1. Eroatea, instalazioa, martxan ipintzea eta baliabide osagarri eta elektrikoak:

6.- ALTZARIAK.

Baco modeloko 123 butaka.

. Eserlekuaren egitura eta barrukoak eta metalezko bastidoredun bizkarra.

. Besoentzako euskarria apar integralean.

. Ilara-amaiera tapizatuak.

. Bizkarraren atzeko aldea plastiko beltzezkoa

. Funda osoaz tapizatutako eserlekua, plastiko beltzezko taparen aukera.

.Malguki bikoitzaren bidez eserlekua automatikoki igotzeko sistema, aukeran eserleku finkoa edo etzangarria 45 °ko bira bikoitz eta guztikoa.

. Eserlekua eta bizkarra blokean poliuretanozko aparrez egina, hotz autoiraungigarritan moldatua.

. Mantentze merkeago bat lortzeko, tapizatu sistema erraz aldatu daiteke fundak aldatzean klipak edo belkroa erabilia.

. Oin birekin finkatuta.

XII. KAP.- SUTEETATIK GORDETZEA.

6 kg-ko hauts sikuzko suitzalgailu 1; presiozko tutu elastikoa eta kontrol eskumetrikoa daukatz.

Eraginkortasuna: 21 A/113 B.

XIII. KAP.-LAPURRETEN KONTRAKO ALARMA SISTEMA.

1 Direkzio biko alarma zentrala, CONNECTION modelokoa. Ondoko eginkizunak daukaz:

- Konfiguratzeko moduko 6 alarma-gune linea amaierako erresistentziagaz.
- Erabiltzaileentzako 6 kode.
- 4 led teklatu edo 2 alfazenbaki onartzen dauz, elektronikadun armairuarekin harremanik izan barik.
- Bertan edo telefono linearen bidez programatzeko modukoa.
- Erantsita dauka transmisore telefonikoa.
- Sartzeko eta irteteko tenporizadorea, programatzeko modukoa.
- Sirenarentzako tenporizadorea.
- Panel sinoptikorako irteera, aukerakoa.
- 12 V-1,5 A-ko elikatze iturria, egonkortua.

Osagaiak:

- 32 karaktereko alfazenbakizko display-a daukan aginte teklatu 1.

1 12 V.6,5 amp orduko bateria.

1 CONNECTION teklatua.

1 Kanpoalderako sirena elektronikoa, autoelikatua eta ARIANE-F modeloko flashagaz. Ezaugarri garrantzitsuenak:

- Poli karbonatozko karkaxa, erresistentzia handikoa; bitsaren kontrako parrila metalikoa dauka.
- Arrankadaren edo kaxa zabaltzearen aurkako autobabesa.
- Irteerako soinu maila 3 metrora: 85 dB.
- 12V/2,1 Ah-ko bateria estankoa.
- Distirak botatzen dabezan eraginkortasun handiko flasha.
- Funtzionamendu tentsioa: 9-16 Vcc.
- Kontsumoa geldirik/alarma konektatuta: 70/950 mA.
- Autonomia geldirik/alarma konektatuta: 36 H/30 min.
- Tenperatura tartea: -25-tik + 70 °C-ra.
- Dimentsioak: 150 x 260 x 105 mm.
- Europako arauen arabera homologazioa.

1 12 V.2,1 Amp/h.bateria.

5 Teknologia bikoitzeko detektagailu bolumetrikoa (infragorrien pasiboa eta mikrouhina). Modeloa: HX-30. Ezaugarri teknikoak:

Norainokoa: 11x9 m.

Mikrouhinen zirkuitu gainbegiratua alarma eta guzti.

Fresnel lentea eta ispilu multisegmentatua; 23 gune daukaz 4 planotan, (zero gunea be bai).

Elikatzea: 10,5tik 16 VCC-ra.

Kontsumoa: 30 mA-tik 12 VCC-ra.

Temperatura tartea: -18-tik + 60°C-ra; konpentsazio automatikoa dauka.

Irrati frekuentzienganako inmunitatea: 100 watt 3 metrora, 27tik 1000 MHz-ra.

Dimentsioak: 70 x 60 x 130 mm.

Autobabesa be badauka.